1.- «FUNDACIÓN ATHLETIC CLUB / ATHLETIC CLUB FUNDAZIOA», Bilbokoa, **ATHLETIC CLUB** kirol-elkarteak eratu zuen, 2002ko otsailaren 26an, Bilboko Juan Ignacio Gomeza Villa notarioaren aurrean emandako eskritura publikoaren bidez (protokolo-zenbakia: 464). 2002ko abenduaren 20an, eskritura hori osatu eta zuzendu egin zen, Donostian, José María Segura Zurbano notarioaren aurrean emandako eskritura publikoaren bidez.

Irabazi-asmorik gabe eratutako erakundea da, eta haren ondarea interes orokorrari lotuta dago iraunkorki.

2.- Fundazioak fundatzaileen borondatea eta Estatutu hauek bete behar ditu, bai eta **9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa**, hori garatzeko erregelamendu-xedapenak eta indarrean dauden gainerako arauak ere.

3.- Fundazioa denbora-mugarik gabe eratu da.

2. artikulua.- Araubide juridikoa eta gaitasun eta nortasun juridikoa.

1.- Fundazioak nortasun juridiko propioa eta independentea du, eratze-eskritura Fundazioen Erregistroan inskribatu zenetik. Gainera, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa du, eta zentzu horretan, muga bakarrak dira fundatzaileek eraketa-egintzan egindako borondate-adierazpenean, Estatutu hauetan eta aplikatu beharreko lege-xedapenetan (batez ere 9/2016 Legean, ekainaren 2koan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoan) ezarritakoak.

2.- Ondorioz, eta Babesletzari egin beharreko jakinarazpenak gorabehera, jarduteko gaitasun osoa du Fundazioak, baldin eta bere helburuak betetzeko bada, Kode Zibilarren 38. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Fundazioak honako hauek egin ditzake:

- a) Mota guztietako jarduera ekonomikoak egin, bere helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak lortzeko.
- b) Era guztietako ondasunak eta eskubideak eskuratu eta besterendu edozein tituluren bidez, eta era guztietako egintzak, negozioak eta kontratuak egin.
- c) Mota guztietako ekintzak egin, Estatutu hauen eta legeen arabera.

3. artikulua.- Fundazioaren helburuak.

1.- Fundazioak interes orokorreko helburu hauek ditu:

- Kirol-, kultura- eta gizarte-jardueren sustapena eta zabalkundea egitea.

2.- Hori horrela izanik, eta azalpen gisa baina mugarik jarri gabe, honako hauek ere Fundazioaren helburuak direla jotzen da:

- a) Gizartearen, kulturaren, kirolaren, artearen edo ongintzaren alorreko edozein erakunderekin lankidetzan aritzea, egoki ikusten bada eta Fundazioaren helburuak hobeto garatzen eta betetzen lagundu badezake.
- b) Kirola gizarte osora hedatzea, eta kategoria eta adin guztietan sustatzea.
- c) Gazteen artean kirola sustatzea eta zabaltzea, guztiei kirola egiteko aukera emanez. Horretarako, kirola eta gazteen prestakuntza integrala eskutik joatea da egokiena, eta hori ere bideratu nahi da.
- d) Kirolariak prestatzea, eta batez ere futbolariak. Horretarako, harrobia sustatuko da, eta euskal federazioei atxikitako ikasketa-zentroak, eskolak eta kirol-talde oinarritzakoak edo amateurak sortu, kudeatu, finantzatu eta zuzenduko dira.
- e) Instalazio eta/edo zerbitzu egokiak sustatzea, mantentzea eta kudeatzea, kirolarien, kirolaren eta gizarte osoaren beharren arabera kirol-jarduera ahalbidetzeko.
- f) Eduki sozial, zibiko eta solidarioko ekintzak egitea, arrazoi fisiko, ekonomiko, sozial edo kulturalengatik baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak integratzeko, eta oro har, gizarte-ekintza sustatzea.

Helburu zabal horien barruan, hona hemen gauzatu beharreko jarduerak zehatz garrantzitsuenak eta berehalakoenak, adibide gisa:

- 1) Kirolarien Garapenerako Zentro bat sortu eta ezartzea, prestakuntza, arreta medikoa eta abar eskaintzeko.
- 2) Baliabide ekonomiko nahikorik ez duten kirolari gazteei dohaintzak, dirulaguntzak, laguntzak edo bekak ematea, edozein ikasketa edo okupazio burutzeko aukera izan dezaten.
- 3) Hitzaldiak, ikastaroak, mintegiak eta abar antolatzea futbolaren irakaskuntza teknikorako eta praktikorako, bai eta kirola egitean lehiakortasun eta kirol-espíritu zintzoa eta jatorra sustatzeko ere.
- 4) Kirol-txapelketak eta -lehiaketak antolatzea, sariak banatzea eta jarduerak egitea, adin eta kategoria guztietako futbolariak parte hartzeko.
- 5) Fundazioak garatutako jarduerekin zerikusia duten aldizkariak, artikulak, prentsa-oharrak eta abar editatzea eta argitaratzea.
- 6) Museoak eta bestelako kultura-erakundeak sortzea, sustatzea eta kudeatzea, bai eta erakusketa-aretoak, liburutegiak, artxiiboak eta Fundazioaren helburuak betetzen eta garatzen lagundu dezaketen bestelako instalazioak ere.
- 7) Fundazioaren helburuak garatu eta bete ahal izateko, besteren finantza-baliabideak sustatu, garatu eta lortzea, hala nola dohaintzak, laguntzak, dirulaguntzak, ekarpenak eta abar.
- 8) Fundazioaren aktibo guztiak ustiatzea, eta lortzen diren etekinak Fundazioaren helburuekin zerikusia duten jarduerak egiteko erabiltzea.
- 9) Fundazioaren barruan «Athletic Gizarte Ekintza» izeneko atala sortzea, Fundazioaren helburu espezifiko gisa adierazitako ekintza sozial, zibiko eta solidarioetarako baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak kudeatzeko.
- 10) Fundazioaren berezko helburuak betetzen lagundu dezakeen beste edozein.

Fundazioak egoki iritzitako moduan garatu ditzake bere helburuak, adibidez beste erakunde batzuetan parte hartuta, eta bide horretan, muga bakarrak izango dira fundazio-gutunean, Estatutu hauetan eta legeetan ezarritakoak.

4. artikulua.- Egoitza soziala eta lurralde-eremua.

1.- Fundazioak Bilbon du egoitza soziala, Ibaigane jauregian (Mazarredo zumarkalea, 23).

2.- Estatutuak aldatzeko erabakia hartuta, egoitza-aldaketa egitea erabaki ahal izango du Fundazioaren Patronatuak. Edonola ere, Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko da erabaki hori. Gainera, Patronatuak eskumena izango du establezimendu, ordezkaritza edo bulegoen egoitzak erabakitzeke, Fundazioaren helburuak betetzeko beharrezkoa denaren arabera.

3.- Fundazioak nagusiki Bizkaiko Lurralde Historikoan garatuko ditu jarduerak, baina izaera unibertsala du, eta Euskal Autonomia Erkidego osoari eskaini behar dio arreta.

5. artikulua.- Onuradunak.

Fundazioak objektibotasun- eta inpartzialtasun-irizpideen arabera hautatu behar ditu onuradunak, interes orokorreko bere helburuen barruan.

6. artikulua.- Jarduteko eta funtzionatzeko printzipioak.

Fundazioak printzipio hauek bete behar ditu bere jardunean:

a) Publizitatea eta gardentasuna. Fundazioak bere helburuei eta jardueri buruzko informazio nahikoa emango du, balizko onuradunek eta herritarrek oro har ezagutu ahal izateko.

b) Inpartzialtasuna eta diskriminaziorik eza onuradunak zehaztean, bai eta bere jarduerak eta prestazioak zehaztean ere.

c) Jarduteko jarraibideak sustatzea, jokabide-kodeak eta funtzionamenduko jardunbide egokiak sortuz.

d) Patronatua osatzen duten pertsonen zerbitzu-espirtua sustatzea, eta Fundazioaren interesak lehenestea norberaren interes partikularren aurrean.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzarekin lankidetzak leiala eta iraunkorra izatea.

f) Fundazioaren ondarea eta errentak Fundazioaren helburuetarako erabiltzeko betebeharra defendatzea eta babestea, Estatutu hauetan eta indarrean dagoen araudian aurreikusitakoaren arabera.

g) Genero-berdintasuna.

II. TITULUA.- PATRONATUA

7. artikulua.- Fundazioaren Patronatua.

Patronatua Fundazioaren gobernu- eta ordezkaritza-organoa da. Hari dagokio Fundazioaren helburuak betetzea, Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak arduraz administratzea, eta horiek etekina eta probetxua eman dezaten zaintzea.

8. artikulua.- Patronatuaren osaera.

1.- Patronatuak gutxienez hiru kide eta gehienez hamabi kide izango ditu.

Patronatua osatzen duten pertsonen betebeharra da organo horrek beti izatea ezarrita dagoen gutxienezko pertsona-kopurua; hau da, gutxienez hiru kide izatea.

2.- Patronatuko kide izan daitezke bai pertsona fisikoak bai juridikoak. Patronatuko kide diren pertsona fisikoek jarduteko gaitasun osoa izan behar dute, eta ezin dute egon kargu publikoan jarduteko desgaituta. Patronatuko kide diren pertsona juridikoek pertsona fisiko bat edo gehiago izendatu behar dituzte, organo horretan haien ordezkari izateko.

3.- Patronatuan honako kargu hauek daude:

- Presidentea.
- Idazkaria (ez da kidea, eta hitzarekin baina botorik gabe jarduten du).
- Diruzaina (aukerakoa).
- Presidenteordea (aukerakoa).
- Batzordekideak.

9. artikulua.- Patronatua osatzen duten pertsonen izendapenak eta kargu-uzteak.

1.- Lehenengo Patronatua fundatzaileak izendatuko du, fundazio-eskrituran.

2.- Patronatuko kideen karguaren iraupena zehazteko, kontuan hartuko da kideak fundatzaileak izendatu dituen edo Patronatuak berak aukeratu dituen, dela Patronatua handitzeko, dela kideren bat ordezkatzeko.

3.- Patronatuak ezin izango ditu kargutik kendu fundatzaileak izendatutako kideak, eta horien karguaren iraupena mugagabea izango da, fundatzaileak baliogabetzen ez duen bitartean.

4.- Kideak hautaketa bidez izendatzen direnean, dela Patronatua zabaltzeko, dela kideren bat ordezkatzeko, horien izendapenak eta kargu-uzteak gobernu-organo horrek berak egingo ditu, gutxienez kideen bi herenen aldeko botoarekin hartutako erabakiaren bidez.

5.- Patronatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari jakinarazi behar dizkio patronatuko kideen izendapenak eta kargu-uzteak, hiru hilabeteko epean, erabaki horiek hartu direnetik edo kideak karguari uko egin dionetik zenbatzen hasita.

6.- Izendatutako pertsonak berariaz onartu behar dute kargua, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen 16. artikuluan aurreikusi bezala. Karguari uko egiteko, artikulua horretako 2. atalean aurreikusitako moduetako bat erabili behar da.

7.- Organo judizial eskudunak erabaki dezake Patronatuko kideak kargutik kentzea, haien aurka erantzukizun-ekintza hasten denean, kargua ez betetzeagatik legeetan aurreikusitako arduraz.

8.- Gobernu-organoko kideen izendapenak eta kargu-uzteak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu behar dira.

9. Fundatzaileak izendatuta, Fundazioaren Patronatuko kide izango da "Athletic Club" erankundearen presidentea, Patronatuko presidente edo presidenteorde gisa.

10.- Patronatua osatzen duten kideen erdiak, gutxienez, fundatzaileak izendatuak izango dira uneoro.

10. artikulua.- Patronatuko kideak kargua uzteko arrazoiak.

Fundazioaren Patronatuko kideen kargu-uztea gertatuko da, honako kasu hauetan:

- a. Heriotzagatik edo heriotza-deklarazioagatik, bai eta pertsona juridikoa desegiteagatik ere.
- b. Ezintasunagatik, desgaitasunagatik edo bateraezintasunagatik, legeak ezarritakoaren arabera.
- c. Patronatuko kide izendatzeko arrazoiak izan zen kargua uzteagatik.
- d. Kargua ez betetzeagatik ordezkaritza leial baten arduraz, baldin eta hala adierazten bada ebazpen judizialean.
- e. Erantzukizun-ekintzaren ebazpen judizialagatik.
- f. Agintaldia amaitzeagatik, kideak denbora jakin baterako izendatu bazituzten.
- g. Uko egiteagatik.

11. artikulua.- Patronatuko kideak ordezkatzea.

1.- Honako hau izango da Patronatuko kideak ordezkatzeko prozedura:

- Fundatzaileak, hark izendatutako kargudunak direnean.
- Patronatuak, hark aukeratutako kargudunak direnean.

2.- Ordezkatzea ezin bada egin adierazitako moduan, Estatutuak aldatzeko ekingo zaio Fundazioei buruzko Legean aurreikusitako moduan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzak ahalmena izango du Fundazioaren gobernu- eta ordezkaritza-organoa behin-behinean osatuko duten pertsonak izendatzeko, harik eta Estatutuen aldaketa hori gertatzen den arte.

3.- Uneren batean Patronatuko kideen kopurua 3 baino gutxiago bada, Patronatuko kide bakarraren kasuan izan ezik, legeak eskatzen duen gutxienezko iristeko behar adina kide izendatu ahal izango dituzte kargua indarrean duten Patronatuko gainerako kideak edo, hala badagokio, fundatzaileak, eta izendapen horien berri emango diote Babesletzari, 30 eguneko epean.

4.- Patronatuko kideen ordezkapena Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu behar da.

12. artikulua.- Patronatuaren iraupena.

1.- Patronatuko kidearen karguak iraupen mugagabea du, fundatzaileak izendatu badu, eta bost urtekoa, Patronatuak berak aukeratu badu.

Kargua iraupen mugatukoa denean, gobernu-organoko kidea berriro hautatu ahal izango da, epe berdinetarako, inolako mugarik gabe.

2.- Gobernu-organoko kide baten heriotza, ezintasuna, desgaitasuna, heriotza-adierazpena, baztertzeta edo bateraezintasuna, agintaldia amaitzea, uko-egitea, kargutik kentzea edo beste edozein zirkunstantzia dela-eta kide horrek kargua uzten badu edo ordezkatu egin behar bada, hutsik geratzen diren karguak fundatzaileak edo Patronatuak bete ahal izango ditu, beharrezkotzat jotzen badute.

13. artikulua.- Patronatuko kideen karguaren doakotasuna.

1.- Patronatuko kideek doan beteko dute kargua. Hala ere, eginkizunak betetzeak eragiten dizkien gastuak itzuli ahal izango zaizkie, behar bezala justifikatuta.

2.- Patronatuak ordainsari bat ezarri ahal izango du Fundazioan beren eginkizunak ez diren beste zerbitzu batzuk ematen dituzten Patronatuko kideentzat, fundatzaileek berriaz debekatu ezean. Erabaki hori Babesletzak baimendu beharko du, hiru hilabeteko epean.

14. artikulua.- Fundazioaren presidentea.

1.- Patronatuak presidente bat aukeratuko du bere kideen artean, eta haren egitekoa izango da Patronatuaren deialdia egitea, bere ekimenez edo gutxienez kideen heren batek hala eskatuta, bai eta eztabaidak zuzentzea eta erabakiak betearaztea ere.

2.- Patronatuaren presidentea gobernu-organismo horren ordezkarik gorena izango da, eta organismo horretako kide gisa dagozkion ahalmenez gain, Fundazioaren ordezkarik ere izango da Patronatuaren eta Fundazioaren beste organismo batzuen erabakien ondoriozko ekintza eta kontratu guztietan, bai eta aurkezten diren auzi, espediente, administrazio-auzi, gobernu-auzi, auzi judizial eta judizioz kanpoko auzi guztietan ere. Era berean, prokuradorei edo abokatuari auzietarako ahalorde orokorrak emateko ahalmena izango du, aipatutako xedearekin.

15. artikulua.- Presidenteordea.

1.- Patronatuak presidenteorde bat izendatu ahal izango du kideen artean. Kideen gehiengoaren botoa behar da horretarako.

2.- Presidente ez badago edo gaixorik badago, presidenteordeak ordezkatuko du, eta inguruabar horiek egiaztatzeko, nahikoa izango da adierazpen hutsa. Presidente eta presidenteordea falta badira, kide zaharrenak ordezkatuko ditu.

16. artikulua.- Idazkaria.

Patronatuak idazkari bat izendatu ahal izango du, kideen artean edo kanpotik, eta haren lana izango da Fundazioaren administrazio-lanak zuzentzea, dokumentuak zaintzea eta

aktak idaztea. Akta horiek, onartu ondoren eta presidentearen oniritziarekin, Akta Liburura transkribatuko dira.

17. artikulua.- Diruzaina.

Patronatuak diruzain bat izendatu ahal izango du, kideen artetik edo kanpotik, eta eginkizun hauek izango ditu:

- a) Fundazioaren funtsak biltzea eta zaintzea.
- b) Sarreraren eta gastuen balantzea aurkeztea eta sinatzea.
- c) Inbentario-liburuak, kontuak, jarduketa-plana eta eguneroko liburua eramatea.

18. artikulua.- Fundazioaren zerbitzuko langileak.

1.- Kudeaketa arrunta gerentzia bati agindu ahal izango zaio, eta haren izendapena eta kargu-uztea Babesletzari jakinarazi behar zaizkio. Gerenteari emandako ahalorde orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu behar dira.

2.- Era berean, Patronatuak kide bati edo batzuei eskuordetu ahal izango dizkie ahal guztiak edo batzuk, baina ezin izango dizkie eskuordetu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen 18. artikuluan aipatutako ahalmenak.

Aurreko paragrafoan adierazitako mugekin, eskuordeko batzordeak eta batzorde betearazleak eratu ahal izango ditu Patronatuak, eta kasu bakoitzean zehazten diren ahalmenak izango dituzte. Gainera, ahaldu orokorrak edo bereziak izendatu ahal izango ditu, eta eginkizun mankomunatuak edo solidarioak izango dituzte.

Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko dira eskuordetze eta ahalordetze orokorrak, auzietarako direnean izan ezik. Eta horien baliogabetzeak ere inskribatu beharko dira.

19. artikulua.- Patronatuaren eginkizunak.

Patronatuaren eginkizunak dira Fundazioaren gobernuari eta administrazioari dagozkion guztiak, eta bereziki eta gutxienez, honako hauek:

- a) Fundazioaren norabidea markatzea, ezarritako helburuak ahal bezain ongi bete ditzan.
- b) Baliabide ekonomiko eta finantzario guztiak administratzea, horien jatorria edozein dela ere.
- c) Aurreko ekitaldiko inbentarioa, egoera-balantzea, emaitzen kontua eta memoria onartzea, bai eta ekitaldi horretako jarduketa-plana likidatzea ere.
- d) Hurrengo ekitaldiko jarduketa-plana eta horren azalpen-memoria onartzea.
- e) Barne-araubidea onartzea.
- f) Eskuordeko batzordeak sortzea, eta horien kideak izendatzea eta ahalmenak zehaztea. Eta ahalorde orokorrak edo bereziak ematea, hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

g) Zuzendaritza-, betearazpen- eta aholkularitza-karguak izendatzea, bai eta gainerako teknikariak, administrariak, lan-kontratudunak eta mendekoak kontratatzea ere.

h) Fundazioaren helburuak ahal bezain ongi betetzeko, mota guztietako egintzak eta kontratuak formalizatzea eta onartzea, zibilak, merkataritzakoak, lanekoak, administratiboak edo bestelakoak direla ere.

i) Goragoko erabakia hartu behar denean, dagozkion proposamenak erakunde eskudunei aurkeztea.

j) Enpresa, erakunde, organismo edo partikularrek lankidetzat tekniko eta langile kualifikatuak prestatzeko programetan parte hartu dezaten sustatzea, funtsak jarritz eta lankidetzat-hitzarmenak eginez.

k) Jaraunspenak, legatuak edo dohaintzak onartzea edo haiei uko egitea, Fundazioari komeni zaionaren arabera. Eta Babesletzari horren berri ematea.

l) Fundazioaren Estatutuak aldatzea, beharrezkoa baldin bada fundatzaileen borondatea ahal bezain ongi betetzeko.

20. artikulua.- Ahalmenak eta ahalordeak eskuordetzea.

1.- Patronatuak bere ahalmenak eskuordetu ahal izango dizkio kideren bati. Ezin izango da inola ere eskuordetu honako gai hauei buruzko erabakiak hartzeko ahalmena:

a) Urteko kontuak onartzea.

b) Jarduketa-plana onartzea.

c) Estatutuak aldatzea.

d) Fundazioaren bat-egitea, zatiketa, eraldaketa, desagitea eta likidazioa.

e) Beste pertsona juridiko bat eratzeko egintzak, non eta egintza horiek ez dauden zuzenean helburuei lotuta.

f) Partaidetza-egintzak edo partaidetzen salmenta beste pertsona juridiko batzuetan, horien zenbatekoa Fundazioaren aktiboaren % 20 baino handiagoa bada.

g) Ondasunen edo eskubideen gainerako edozein xedapen-egintza, horien zenbatekoa Fundazioaren aktiboaren % 20 baino handiagoa bada.

h) Zuzkidura handitzea edo murriztea.

i) Aktibo eta pasibo guztien edo batzuen bat-egitea, zatiketa edo lagapen orokorra.

j) Sozietateak edo beste pertsona juridiko batzuk desagiteko egintzak.

k) Patronatua osatzen duten pertsonak kontratatzea, jarduketa hori errepikakorria denean eta Babesletzak kasu berberetarako baimendu duenean izan ezik.

l) Erantzukizunpeko adierazpenak onartzea eta formalizatzea.

2.- Halaber, Patronatuak ahalorde orokorrak eta bereziak eman edo baliogabetu ahal izango ditu. Ahalorde horiek eskritura publikoan jasoko dira, Patronatuak berak onartu eta bozkatu ondoren, eta Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

21. artikulua.- Eskuordeko batzordeak eta batzorde betearazleak.

1.- Patronatuak eskuordeko batzordeak eta batzorde betearazleak eratu ahal izango ditu, eta kasu bakoitzean zehazten diren ahalmenak izango dituzte.

2.- Batzordeak, sortu eta eskritura publikoan jaso ondoren, Fundazioen Erregistroan inskribatu behar dira. Batzordeen eraketa formalizatzean zehaztuko dira haien osaera eta funtzionamendurako erregulazioa.

22. artikulua.- Patronatuaren betebeharrak.

Fundazioaren Patronatua osatzen duten pertsonak betebeharrak hauek dituzte:

- a) Fundazioaren helburuak zorrotz betetzea eta betearaztea, legeetan eta Fundazioaren Estatutuetan xedatutakoaren arabera.
- b) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratzea eta horien produktibitatea erabat mantentzea, kudeaketa onaren irizpide ekonomiko-finantzarioen arabera.
- c) Ordezkaririk leial baten arduraz jardutea karguan.

23. artikulua.- Patronatua osatzen duten pertsonen erantzukizuna.

1.- Patronatua osatzen duten pertsonak erantzukizun solidarioa izango dute Fundazioaren aurrean, legeen edo Estatutu hauen aurkako egintzengatik edo kargua dagokion arduraz ez betetzeagatik eragindako kalte-galeren aurrean.

2.- Erantzukizunetik salbuetsita geratuko dira erabakiaren aurka bozkatu dutenak eta, erabakiaren onarpenean eta betearazpenean parte hartu izan gabe, erabakiaren berri ez zutela frogatzen dutenak, edo erabakiaren berri izan arren, kaltea saihesteko komeni zen guztia egin zutela edo, gutxienez, erabakiaren aurka agertu zirela frogatzen dutenak.

24. artikulua.- Patronatuaren barne-funtzionamendua.

1.- Patronatuak gutxienez 2 bilerak egingo ditu urtean. Urteko lehen sei hilabeteetan, nahitaez bilduko da urteko kontuak onartzeko, eta urteko bigarren sei hilekoaren amaieran ere bai, hurrengo ekitaldiko jarduketa-plana onartzeko.

2.- Patronatuaren deialdiak idatziz egin behar dira, gutxienez bileraren data baino 10 egun lehenago, urgentziazko kasuetan izan ezik. Bilera urgentziazkoa denean, epea 3 egunera murriztu ahal izango da. Deialdian, presidenteak erabakitako gai-zerrenda jasoko da. Presidenteak kontuan izan behar ditu gobernu-organoko kideen iradokizunak.

25. artikulua.- Patronatuaren eraketa eta erabakiak.

1.- Patronatua baliozkotasunez eratuta geratuko da lehenengo deialdian, baldin eta Patronatua osatzen duten pertsonen erdia gehi bat bertaratu badira, zuzenean edo ordezkioen bidez.

2.- Aurreko paragrafoan adierazitako quorumik ez badago, Patronatua ordubete geroago bilduko da. Bigarren bilera hori baliozkotasunez eratzeko, nahikoa da Patronatuko hiru kide bertaratzea, betiere presidente eta presidenteorde titularrak bertan badaude.

3.- Aurreko paragrafoetan adierazitakoa alde batera utzita, Patronatuaren deialdia eginda dagoela joko da eta Patronatua baliozkotasunez eratuta geratuko da, hura osatzen duten pertsona guztiak bertan daudenean eta aho batez onartzen dutenean bilera egitea.

4.- Erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira, honako kasu hauetan izan ezik:

- a) Aldatzeko, bat egiteko, zatitzeko eta desegiteko erabakia. Kasu horretan, Patronatuko kideen bi herenen aldeko botoa beharko da.
- b) Patronatuko kideak izendatzea eta kargutik kentzea, hautaketa bidezko kide gisa, dela Patronatua handitzeko, dela kideren bat ordezkatzeko. Kasu horretan, Patronatuko kideen bi herenen aldeko botoa beharko da.

5.- Presidentearen botoak hautsiko ditu balizko berdinketak.

6.- Patronatuaren bilera bakoitzean, dagokion akta idatziko du idazkariak. Bertan, eguna eta lekua zehazteaz gain, nor bertaratu diren, zer gai eztabaidatu diren eta zer erabaki hartu diren zehaztuko da.

7.- Patronatua bideokonferentzia bidez edo beste komunikabide batzuen bidez bildu ahal izango da, betiere bermatuta badago bertaratzen direnen identifikazioa, komunikazioaren jarraitutasuna, eztabaidetan parte hartzeko aukera eta botoa ematea. Kasu horretan, bilera presidentea dagoen lekuan egin dela joko da.

8.- Ohiz kanpoko egoeretan, bilerarik egin gabe hartu ahal izango ditu erabakiak Patronatuak, betiere informazio- eta boto-eskubideak bermatuta badaude, jasota geratu bada botoa jaso dela, eta benetakotasuna bermatu bada. Erabakia pertsona juridikoaren egoitzan eta balioz emandako azken botoa jasotzen den egunean hartu dela joko da.

III. TITULUA.- ONDAREA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA

26. artikulua.- Fundazioaren ondarea.

Fundazioaren ondarea izango dira hasierako zuzkidura osatzen duten eta ekonomikoki baloratu daitezkeen ondasun, eskubide eta betebeharrak guztiak, bai eta Fundazioa eratu ondoren eskuratutako ondasun, eskubide eta betebeharrak ere, zuzkidurari lotuta egon ala ez.

27. artikulua.- Ondare-zuzkidura.

1.- Fundazioaren hasierako ondare-zuzkidura da eraketa-eskritura publikoan izaera horrekin jasotakoa, eta fundatzaileek jarritako ondasunez eta eskubideez osatuta dago.

2.- Geroko ondare-zuzkidurak Patronatuak onartu behar ditu, eta urteko kontuetan jaso behar dira.

3.- Fundazioak bere zuzkidura handitzeko erabil ditzake diru-sarreraren soberakinak.

28. artikulua.- Fundazioaren ondarea zaintzea.

1.- Fundazioaren ondarea zaintzeko eta babesteko, honako arau hauek bete behar dira:

a) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunek eta eskubideek Fundazioaren izenean egon behar dute, haren inbentarioan jasota, eta hala badagokio, dagozkien erregistroetan inskribatuta.

b) Ondasun higiezinak eta/edo eskubide errealak Fundazioaren izenean inskribatuko dira, Jabetza Erregistroan. Inskriba daitezkeen gainerako ondasunak dagozkien erregistroetan jaso behar dira.

c) Baloreak eta esku-dirua, jabetza-tituluak, gordailu-frogagiriak eta jabaria, jabetza, erabilera, gozatzea edo Fundazioaren bestelako eskubideren bat egiaztatzen duten dokumentuak Patronatuak zehaztutako erakundean gorde behar dira, Fundazioaren izenean.

d) Gainerako ondasun higigarriak Patronatuak zehaztutako moduan zaindu behar dira.

2.- Ondasun edo eskubide horiek guztiak inbentario-liburuan zehaztu behar dira. Patronatuko idazkariaren ardurapean egongo da liburu hori, eta hark ikuskatuta, ondasunak eta eskubideak identifikatzeko eta deskribatzeko behar diren inguruabar guztiak jasoko dira bertan.

29. artikulua.- Ekonomia- eta kontabilitate-betebeharrak.

1.- Urteko kontuak onartu eta hurrengo 30 egun naturalen barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistrora bidali beharko ditu kontu horiek Fundazioaren Patronatuak, behar bezala sinatuta, han gorde daitezten. Irabazi asmorik gabeko erakundeen kontabilitateari buruzko araudian aurreikusitako baldintzak bete behar dituzte kontu horiek.

2.- Fundazioaren urteko kontuetan, balantzea, emaitzen kontua, memoria eta aurreko jarduketa-planaren likidazioa sartu behar dira, gutxienez. Era berean, auditoretza-txostena aurkeztu behar du Patronatuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legean aurreikusitako kasuetan.

3.- Kontu horietan jaso behar dira Fundazioaren ondare-, ekonomia- eta finantza-egoera, urtean zehar egindako jarduerak, eta ondarearen kudeaketa ekonomikoa. Informazio horrek nahikoa izan behar du Fundazioaren helburuak eta lege-aginduak betetzen direla jakinarazteko eta justifikatzeko.

4.- Ekitaldi ekonomikoa urtebetekoa da. Urte naturala, hain zuzen ere.

5.- Fundazioak jarduketa-plan bat egingo du ekitaldi ekonomiko bakoitzerako. Plan horretan, diru-sarrerak eta gastuak jasoko dira, modu orekatuan. Plan hori Babesletzari aurkeztu behar zaio azalpen-memoria batekin batera, onartu den urteko azken hiruhilekoan.

30. artikulua.- Fundazioaren baliabideak aplikatzea.

1.- Fundazioaren ondasunak eta errentak Fundazioaren helburuak betetzeko izango dira, zuzenean eta berehala. Erakunde fundatzaileak, Patronatuko kideek, laguntzaile atxikiek, ohorezko laguntzaileek eta beste pertsona batzuek Fundazioari egiten dizkieten ekarpen eta ordaintzen dizkieten kuota arruntak eta apartekoak Fundazioaren helburuak betetzeko izango dira, zuzenean.

2.- Emaizten kontuan kontzeptu guztiengatik lortutako diru-sarrerak hartuta, gutxienez % 70 bere helburuak betetzeko erabili behar ditu Fundazioak, diru-sarrerak lortzeko egindako gastuak kenduta. Dena den, Fundazioaren helburuak betetzeko gastuak ez dira kendu behar. Eginbehar hori betetzeko epea honako hau izango da: kasuan kasuko emaitzak eta diru-sarrerak lortu diren ekitaldiaren hasieratik, ekitaldi hori itxi eta hiru urte igaro bitarte.

3.- Administrazio-gastuak Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunen eta eskubideen administrazioak zuzenean eragindakoak izango dira, bai eta Patronatuko kideei beren kargua betetzean sortutako gastuak ere, baldin eta dirua itzultzeko eskubidea badago horien gainean.

31. artikulua.- Ekonomia-, enpresa- edo merkataritza-jarduerak egitea.

1.- Fundazioak bere helburuekin zerikusia duten edo horien osagarri diren ekonomia-, enpresa- edo merkataritza-jarduerak egin ditzake, zuzenean edo beste erakunde batzuen bitartez. Jarduera horietan, lehiaren defentsari buruzko arauak bete behar ditu.

2.- Gainera, beste edozein ekonomia-jardueratan esku hartu dezake Fundazioak beste erakunde batzuetan parte hartuz, baldin eta sozietate-zorren erantzukizun pertsonalik ez badago.

32. artikulua.- Xedatze-egintzak eta kargak ezartzeko egintzak.

1.- Fundazioak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzari jakinarazi beharko dizkio Fundazioaren ondarearen parte diren ondasunen edo eskubideen kostu bidezko edo doako xedatze-egintzak, bai eta kargatze-egintzak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legean adierazitako moduan.

2.- Patronatuak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dio Babesletzari, xedatze- edo kargatze-erabakia behar bezala hartu dela jakinarazteko. Bertan, eragiketaren arrazoiak eta beharra adierazi beharko ditu, eta azaldu eragiketak ez diola kalterik egiten Fundazioari eta ez duela arriskuan jartzen haren bideragarritasun ekonomikoa.

3.- Fundazioaren aktiboaren % 60 baino gehiagoko merkatu-balioa duten ondasunen edo eskubideen gaineko xedatze- edo kargatze-egintzak eginez gero, profesional independente batek egindako azterketa ekonomikoa aurkeztu beharko du Patronatuak

erantzukizunpeko adierazpenarekin batera, eta azterketan azaldutakoa egiaztatu eta Fundazioaren bideragarritasun ekonomikoa bermatu beharko du profesional horrek, bai eta eragiketa ekonomia- eta finantza-irizpideen eta merkatu-irizpideen arabera egin dela bermatu ere.

4.- Aipaturiko xedatze- edo kargatze-egintzak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan jaso behar dira, hargatik eragotzi gabe dagokion erregistroan inskribatzea, hala dagokionean. Gainerako xedatze- edo kargatze-egintzak Babesletzari urtero aurkeztu beharreko memorian jaso behar dira.

IV. TITULUA.- ALDAKETA, BAT-EGITEA, ZATIKETA, DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

33. artikulua.- Estatutuak aldatzea.

1.- Fundazioaren Patronatuak hala erabakita, Estatutu hauek aldatu ahal izango dira, betiere hala komeni bada Fundazioaren helburuak ahal bezain ongi betetzeko eta fundatzaileek berariaz debekatzen ez badute.

2.- Estatutuak aldatzeko erabakia arrazoituta hartu beharko da, gutxienez kideen bi herenen aldeko botoarekin, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko da.

34. artikulua.- Fundazioa desegitea.

Fundazioa desegin egingo da kasu hauetan:

- a) Estatutuetan aurreikusitako egoera berezi moduan, «Athletic Club» erakundea desegiten bada, kirol-klub gisa edo indarreko legediaren arabera hartu dezakeen beste edozein forma juridiko gisa.
- b) Fundazioa eratu izateko helburu osoa bete bada.
- c) Fundazioaren xedea gauzatu ezin bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legean estatutuak aldatzeari, bat-egiteari eta zatiketari buruz xedatutakoari kalterik egin gabe.
- d) Bat egiteko edo zatitzeko prozesu baten ondorioz hala dagokionean.
- e) Eraketa-eskritura publikoan aurreikusitako arrazoiengatik.
- f) Legeetan aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik.

35. artikulua.- Fundazioa desegiteko prozedura.

1.- Aurreko artikuluen a) ataleko kasuan, Fundazioa eskubide osoz desegin da.

2.- Aurreko artikuluen b), c) eta e) ataletako kasuetan, Patronatuak ados jarri beharko du Fundazioa desegitea erabakitzeko, eta erabaki hori Babesletzak berretsi beharko du. Patronatua ados jartzen ez bada, edo Babesletzak ez badu Patronatuaren erabakia

berresten, ebazpen judizial arrazoitua beharko da Fundazioa desegiteko, eta Babesletzak edo Patronatuak eskatu ahal izango du hori, kasuaren arabera.

3.- Aurreko artikulua f) ataleko kasuan, ebazpen judizial arrazoitua beharko da.

4.- Fundazioa desegiteko erabakia arrazoituta hartu beharko da, gutxienez Patronatuko kideen bi herenen aldeko botoarekin.

5.- Fundazioa desegiteko erabakia, edo hala badagokio, ebazpen judizial arrazoitua, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu behar dira.

36. artikulua.- Soberan gelditutako ondarearen likidazioa eta xedea.

1.- Fundazioa deseginez gero likidazio-prozesua irekiko da, desegiteko arrazoia bat egiteko prozedura edo desegiteko arrazoiak betetzea denean izan ezik. Likidazio-prozesua Patronatuak egingo du, edo gobernu-organo horrek izendatutako likidazio-batzordeak, eta Babesletzaren kontrolpean egingo da, non eta ebazpen judizial arrazoitu batek ez duen bestelakorik ezartzen. Fundazioak bere nortasun juridikoari eutsiko dio prozesua amaitu arte, eta prozesuak iraun bitartean, Fundazioa «likidazioan» dagoela adierazi beharko da.

2- Likidazioaren ondoriozko ondasunak eta eskubideak honako helburu hauetarako erabiliko dira:

- a) Fundazioaren likidazioaren ondoriozko ondasunak eta eskubideak interes orokorreko helburuetarako erabiliko dira, fundatzaileak fundazio-eskrituran adierazitako borondatearen eta Patronatuak erabakitakoaren arabera.
- b) Patronatuak hala egiten ez badu, irabazi-asmorik gabeko beste erakunde publiko edo pribatu batzuetarako izango dira ondasun eta eskubide horiek, baldin eta erakundeek interes orokorreko helburuak betetzen badituzte eta desegindako fundazioaren antzeko helburuak badituzte; ahal dela, udalerri berean edo lurralde historiko berean izan behar dute egoitza erakunde horiek.

3.- Aurreko ordenarik ezean, desegindako fundazioaren antzeko helburuak dituzten beste fundazio edo erakunde batzuetarako emango ditu ondasunak eta eskubideak Babesletzak; ahal dela, udalerri berean edo lurralde historiko berean izango dute egoitza erakunde horiek.

V. TITULUA.- BABESLETZA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA

37. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa.


Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da Fundazio honen eraketa, bai eta legez beharrezkoa den beste edozein egintza edo negozio juridiko ere.

38. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletza.

Fundazio hau Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren tutoretza, aholkularitza eta kontrolaren mende dago, indarrean dauden legeetan aurreikusitako baldintzetan.

39. artikulua.- Zehapen-araubidea.

Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legean aurreikusitako zehapen-araubidearen mende dago.

A handwritten signature in black ink, consisting of a vertical line with a horizontal crossbar and a small loop at the bottom right.
